

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**KAZETARITZA GRADUA / 2021-2022 IKASTURTEA**

**Erreportaje sakona**

**“DRAG”-AREN HEGALEN ATZEAN**

**EGILEA:** Iñaki Rubio Mendoza

**ZUZENDARIA:** Imanol Murua Uria

Leioa, 2022ko irailaren 8a

# Aurkibidea

Sarrera orokorra.....	3
Lehen testu nagusia.....	4
Bigarren testu nagusia.....	15
Leihoak.....	27
1.Zatidura .....	28
2.Zatidura / Analisia.....	30
3.Zatidura / Glosarioa .....	32

## “Drag”-aren hegalen atzean

*Ikuskizun bakoitzaren bestaldean istorioak, nortasuna eta bizirauteko borroka anitz daude, eta horietako bakoitzaz dago osaturik transformismoa*

**Iñaki Rubio Mendoza**

Ezin hobeki margotutako koadro bat bezalakoa da *drag*-a. Oholtza, musika, ahotsa, publikoa, efektu bereziak, arropa, makillajea, atrezzoak... Eszenaratzeak detaile guztiak zaintzen ditu, ikuskizuna bide onetik joan dadin. Ordea, *iceberg*-aren punta besterik ez da ikusgarritasun hori, hegalen atzean baitago transformismoak dakarren izerdi guztia. Frisoak gurutzatu orduko ageri da *drag*-a parez pare.

Diziplina artistikoan diharduten pertsonekin ere berdina gertatzen da; haratago begiratzea beharrezkoa da makillajearen atzean dagoen pertsona erdiesteko, eta, hortaz, *drag*-a bere esentzian ezagutzeko. Beraz, artista horien barrenak arakatzea ezinbestekoa litzateke *drag*-a bertatik bertara antzemateko. Jaun, andre eta tartekook, luzamendu gehiagotan ibili gabe, has dadila ikuskizuna.

## **Generoa jantzi eta erantziz**

*“Drag”-a nola bizi duten kontatu dute euskal trabesti esanguratsuenetako batzuek, eta aniztasun espazio gisa aldarrikatu dute diziplina*

Zer da *drag* izatea? Zaila da erantzun zehatzik aurkitzen, norberak bere modura bizi baitu. Adierazpen artistiko bat da, genero-rol hegemonikoak esajeratuz egiten dena, baina bertan dihardutenentzat hori baino askoz gehiago da. Artista horientzat bizimodua da, ogibide izateaz gain identitate propio bat ere badena. Esajerazioa, *performance*-a, fantasia, moda... elementu guzti horiek konbinatuz sortzen dute *drag*-a. Nahierara egindako fantasia artistikoa da finean, genero rola erantziz ezarritakoa zalantzan jartzea helburu duena.

Orientazio sexualak, norberaren generoak edota sexuak ez dute baldintzatzen inondik inora ere *drag* izate hutsa, edozeinek jardun baitezake bertan; geroz eta zabalagoa ari da bilakatzen eta munduko bazter guztiak hartzen. Euskal *drag*-a, noski, fenomeno horren lekuko izaten ari da eta aniztasun horren adierazle dira Donatella Mani, Albina Stardust, Asier Bilbao, Mykel Nuts, Yogurina Borova, La Otxoa, Maruxak eta Las Fellini, euskal *drag* esanguratsuenetako batzuk.

### **Donatella Maní, orainaldian antzina**

*“Drag*-a jaiotzetikoa da, berezkoa”, dio Miguel Biurrunek, pintzel bat baliatuz makillaje-basea aurpegitik barreiatzen duela. Ondoren, ispiluan begiratu, ahoa zabaldu eta keinu dotore bat egin du, haragi koloreko margoa hartuz ezpainak leun-leun ferekatzen dituela. “Hasieran, debekaturiko zerbait ere bada”. Txiki-txikitatik sentitu da trabesti, baina Tebas-Muru Artederreta (Nafarroa) bezalako herri nimiño batean hazteak ez zion utzi haratago ikusten. Horregatik du aldarri landa-eremuaren eta bertako LGTBIQ+ pertsonen ikusgarritasuna.

Nerabea zela Iruñera joan zen ikastera. Bertan, bere identitatea aurkitzen lagunduko zioten lagunak ezagutu zituen, horien artean bere bikotea izan zena. Ordea, berandu baino lehen banandu ziren, “bizitzaren gorabeheren” kariatz. Min horretaz aldentzeko eta berau birsortzeko aukera eman zion *drag*-ak. “Beti diot amodiozko haustura batetik irteten lagundu zidala”, azaldu du adorez. “Geroztik, nire *drag* errealitatea sortzeari ekin nion. Sormenarekin eta *performance*-arekin amets egiteko beharra sentitu nuen”. Hala, Madrilera joan zen ileorde eta soineko bat erostera “dendarik utzienean”. Era hartan jaio zen Donatella Maní, 22 urteko gaztearen alter egoa.

Bekainak ezabatzeari ekin dio orain. Brotxa mardul bat hartu du bidetaren gainean dagoen estutxe gardenetik; krema moduko batean igurtzi eta ileen gainean ipini du. Pentsakor gelditu da une batez, elkarrizketaren haria galdu izan balu bezala. “A, bai! – bota du bekain berriak zehazten dituen bitartean– Donatella nire beste ni-a da, pertsona desberdinak dira; ileordea kentzerakoan badakit nor naizen”, esan du, nahiz eta bere aburuz biak ala biak konektaturik dauden; maleta batean eramatea bezalakoa da harentzat.

Egun, ederki asko makillatzen du bere aurpegi gaztea, mihise bat bailitzan, baina ez da beti hala izan: “Hasieran tutik ez nekien makillajeaz, eta lagun batek apaintzen ninduen”. Orlegi-ur koloreko betzuloek berau berak jositako soineko *vintage* dotorearekin egiten dute bat, gazteak ez baitu ematen haririk gabeko puntadarik. Pixkanaka, ari da itxura hartzen. Inguruak ere laguntzen du: garai bateko giroa ematen dioten baldosak hornitzen dute komuna, baita txorrotak eta bonbillek ere. Antzinerat darama Bilboko Autonomia kaleko etxe hori zapaltzen duen edonor. Hori ere aldarrikatzen baitu Donatellak, lehenaldia: “Betiko emakumea da nire inspirazio iturri; oiloei jaten eman, mezara joan eta lau trapu jantzita doan landa-emakumea”.

Ileordearen txanda da orain. Dotorea da, urre kolorekoa eta sorbalda estaltzen dio. 60ko hamarkadako orrazkera darama, Karina, Brigitte Bardot edota Carmen Sevilla bezalako artistak gogorarazten dituena: dentsua, bolumen handikoa eta kardatua. Bere presentziak ahalmena iradokitzen du, berezi egiten duen karisma alde guztietara zabalduz. “Inoiz ez duzue ikusiko Donatella trapero bat”, dio barrez. Orain bai, azken betileordea itsastearekin batera, Miguel Biurrun ezkutatu eta Donatella Maní agertu da komuneko ispiluaurrean. *Show*-a hastear da.

## **Albina Stardust, sinesteko ikusi**

Eneko Garciaren ametsa pop izar bat izatea zen haur bat besterik ez zela, eta orduan jakingo balu noraino iritsi den ez zukeen sekula imajinatuko. Egun, 25 urte ditu, baina 6 urterekin jada janzten zituen ama eta ahizparen takoi zein soinekoak, pop erreginen koreografiak imitatuz. “Show hutsa”, bere hitzetan. Nerabezaroan *bullying*-a pairatu zuen, eta bere baitan giltzaperatu zuen nortasuna. Alabaina, sorterrri duen Iruñetik Gasteiza ikastera joan zenean askatu ahal izan zuen bere pasioa. Albina Stardust jaio zen.

Kafea eta opil bat eskatu ditu, eta Iruñeko Katakarak kultur guneko mahai bakarti batean eseri da; hankak gurutzatu ditu segidan, dotoreziaz. Aukeran datorkio *erregin* hitza, agertokira igo orduko bere baitan hartzen baititu ikusleak. Gerriraino heltzen zaion peluka ilehori zetadunak are gehiago egiten du distira kafetegiko leihotik sartzen diren eguzki izpiek areagoturik. Edozein gatibatu lezake, eta jantzi bristadatsu eta plataforma handiko takoiak artistaren izaera are ikusgarriagoa egiten dute. Haren estetika, mugimendu eta ziurtasunak Lady Gaga agerrarazten du oholtzan. “Nire erreferente nagusienetakoa da abeslaria”, mintzatu da zirrarez.

Ordea, Albina eta Eneko izaki berbera dira. Biak dira bat. Pixkanaka landu du bi izaerak bateratzea, bakoitzak ematen dizkion abantailak aprobetxatuz: “Lehen *drag queen* gisa jantzita soilik sentitzen nintzen ahaldundurik; orain, Albinak eman didan ahalmena ateratzen du Enekok ere”. Dena den, Albina Stardust pertsonaia ez duela inoiz sortu gaineratu du, beti izan baita Enekoren “luzapen zuzena”.

Beraz, Enekok asko erakutsi dio Albinari, eta alderantziz. Irakasgai horietako bat auto ezagutza izan da drag erreginaren aburuz. “Identitate ez bitarra nuela ezagutu nuen *drag*-ari esker”. Izan ere, gaztetan trans pertsona zelakoan, hainbat buruhauste izan zituen, baina dragari esker alde femenino hori landu ahal izan zuen, bere burua ederki ezagutzeraino. Heziketa metodo bat ere izan daiteke bere iritziz, hala, haur askoren bidea argituko litzatekeelako. Halaber, *drag*-a identitate politiko bat dela ere nabarmendu du artistak; “maritxua izatea” bezalakoa da, kuiarra.

Hain zuzen ere, *drag*-ak badu asko aktibismotik. Izan ere, “arte eta ikuskizuna politikaren mendeko” dira. Albinak deritzo *drag*-a ekintza politikoa dela, eskuarki. “Soilik kalera ateratzearekin aldatzen ari zara zerbait”, esan du Stardustek. “Jendeak

begiratzen zaitu, galderak egin... debateak sortzen dituzu presentzia hutsarekin; gizartea harrotzen duzu”. Jabetzeko, ikusi egin behar izaten baita sarritan.

### **Asier Bilbao, ikuskizuna eta diziplina**

“Nahiko arraroa naiz, erradikala ere bai agian”, dio Asier Bilbaok. Hitzok *Key Pub*-a zeharkatu dute eta isiltasuna nagusitu da ondoren; izotz makinaren zarata entzuten da soilik. “Argi daukat zer nahi dudan eta nora joan nahi dudan, inork ez dit esan sekula egin beharrekoa”, jarraitu du irmo, hutsik dagoen lokaleko barraren atzetik.

Aretoa ere berezia da, bere antzera. Bertara iristeko Bilboko Kristo kalean dagoen aldapa neketsu bat igo behar da lehenik. Kale estua da, iluna, eta ez dagokio *Key* bezalako lokal koloretsu bati. Atea zeharkatu orduko, barrak eta paretak egiten duten pasabideak eszenatokira bideratzen du bezeroa. Lokala txikia den arren eroso sentitu daiteke edonor. Halaber, izar distiratsuz beteriko horma arrosek ukitu maritxua ematen diote tokiari, oholtzan agertuko dena aurreikusiz bezala. *Chill* itxurako aulki eta mahaiek hornitzen dute ingurua, eta, aurrerago, artistaren tenplu iragangaitza begizatzen da; kamerinoa. Guztiz debekaturik dago bertara sartzea, eta lankideek soilik dute baimena. “Jendeak transformazio prozesuan ikusten bazaitu magia guztia galtzen da”, adierazi du seriotasun handiz.

52 urte bete ditu, eta ia guztiak eman ditu tarima eta barra tartekatuz, baina berak benetan gogoko duena azkeneko horretan aritzea da. *Key*-ean hasi zenean zerbitzari lanak egiten zituen, eta kasualidadez hasi zen performatzen, soldaduskara joan aurretik “hainbat gauzatxo” eginak bazituen ere: “Sekula ez nuen pentsatu niri egokituko zitzaidanik”. Baina hala izan zen, eta pubeko transformistak huts egiten hasi ziren heinean, berak hartu zuen lekukoa, gogo gutxirekin bada ere, eta geroztik ostiralero aritu da bertan. Aretoaren tradizio transformistarekin jarraitzearen hasi zela dio eta, egun, bera da jabea.

Ordea, ez da identifikatzen *drag* bezalako terminoekin. Transformistatzat edota Showmantzat du bere burua, izan ere, *drag*-a moda bat dela dio, transformismoaren benetako balore eta ezaugarriekin bat ez datorrena. “Taulak izatea da garrantzitsuena, publikoa entretenitzen jakitea, eta ez makillaje eta traje polit batekin playbacka egitea”.

Izan ere, eskola zaharreko transformismoa botatzen du faltan, horrek dakarren diziplina eta ardurarekin.

Bere lehen inpresioak maiz kontrakoa iruditu dezakeen arren, atsegina eta dotorea da. Estetika zehaztuegia ez badu ere, erraz igartzen da bera dela dagoen tokian dagoela. Halaber, alter egorik ez duela dio, berau baita uneoro, Asier. “Nire paranoia propioa naiz”. Genero bitartasuna ere gaingaitzen du pertsonaiak, emakume, gizon edota animalia batetik haratago baitoa haren estetika. Ordea, zaharkiturik dagoela esan izan diote nonoiz, baina berak dio bere artea *mainstream*-etik urrun dagoela: “Ez dago lumarik, distirarik... ikustera ohiturik gauden ikuskizunekin ez du zerikusirik”. Garai bateko *cabaret* estilo kutsua dute bere ikuskizunek.

### **Mykel Nuts, euskal Dandya**

Gizon elegante eta ederra dirudi lehen begi kolpean. Jaka beltza darama, kolore berbereko prakarekin bat eginez. Azpian alkandora zuria du jantzirik, eta botoien patrioiak masailean itsatsirik duen bizarorderantz bideratzen du begirada. Gainera, aurpegiko makillajeak gizon-fakzioak markatzen dizkio, eta gominadun ile motzak exekutibo ahaltzu baten itxura ematen dio, Donostiako kale dotoreekin bat etorriz. “Andrezale bat naiz”. Mykel Nuts da bera.

Familia kontserbadore batean jaioa, beti mespretxuz hitz egin izan diote *drag*-ari buruz. “Atentzioa deitzeagatik egiten dute”, esan ohi dio amak. Hortaz, *drag*-arekiko ikuskera negatiboa eraikitzen joan zen artista. Bere burua ere ez zuen begi onez ikusten, gizarteak gizonezkoei esleituriko arropa janztea gogoko izan baitu beti, bere ingurukoengoz bestera. “Oso neska ederra zara, hobeto jantzi edota orraztuko bazina...”. Konplexu asko eragin zizkion horrek guztiak. “Ez nekien nor nintzen”. Horrek zer pentsatua eman zion bere genero eta identitatea aurkitze aldera. “Ez bitarra naiz? Gizon transa agian?”.

Autoezagutza prozesu hartan zebilela, Espainiako Estatuko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioak antolaturiko *Armairurik gabeko Gazteen Jardunaldi*-en berri izan, eta joatea erabaki zuen. Bertan Sassy Science *drag* artista ezagutu zuen, eta aurkitzeke zeukan mundu oso bat agertu zitzaion aurrez aurre. “Asko ikasi nuen”.



Hasiera batean, ordea, behea jo zuen, galdurik sentitzen baitzen. Beraz, aingeru moduko pertsonai bat sortu zuen, bere ondoan egongo zena eta *drag* mundua arakatzeko lagunduko ziona. Pertsonaiari buruzko zinema-gidoi bat ere idazten hasi zen. “Denborarekin konturatu nintzen ni neu nintzela aingeru hori, nire historia kontatzen ari nintzela”. Apurka apurka, egituratu zuen bere nortasuna, eta estatuko hainbat *drag king*-ekin hitz egiten hasi zen, orain bizpahiru urteko inauterietan estreinakoz “drageatu” zen arte. “Nire identitatea aurkitu nuen azkenik”. Aingeruak hegan egiten ikasi zuen.

Mykelek 29 urte ditu egun, eta jardunean dagoen *drag king* bakarra da Euskal Herrian. Bere iritziz, generoa alde batera utzirik, norberaren fantasia propioa egikaritzeko artea da *drag*-a, inolako itzuliturutan ibili gabe. “Nire *drag* jantzia superheroi baten kapa bezalakoa da; gizartearen aurrean daramadan maskara kentzen dut eta naizen bezalakoa naiz”, esan du Nutsek Donostiako Konstituzio Plazan sartu ahala. Halaber, kirola eta bertan sorturiko estereotipoak hedatzeko tresna gisa darabil diziplina, hiriko kiroldegi batean lan egiten baitu. “Lanean nagoenean Mykel naiz ni neu baino gehiago”.

### **Yogurina Borova, aniztasunean heziz**

Oroz gaindi, jakintzagai anitzeko artista da Eduardo Gaviña, ohiko *drag* erreginak ez bezalakoa. Errespetua, aniztasuna eta maitasuna aldarrikatzen ditu, eta gremioko artista askok darabilten “hizkera satsua” saihestearen aldekoa da. Umorea du ardatz, gizartea kritikatu eta eraldatzeko tresna gisa. “Nitaz barre eginez gizartea kontzientziaztea da nire helburu nagusia”, azaldu du aurpegiari irribarre bat marraztuz. Ahalduz duen maskara da *drag*-a Gaviñarentzat.

Bilboko Zazpi Kaleetako taberna kuttunenean kafea eta tostada eskatu ditu, eta bigarren solairuko mahai batean jesarri da, goitik behera zabaltzeko irrikaz. Ilusio handiz bizi du lanbidea, eta harro ageri da bere ibilbideaz, bertan kasualitatez hasi bazen ere. Eskolako inauterietan *neskaz* mozturatu zenekoa elur pilota baten lehen maluta besterik ez zen izan: “Espainiar trantsizio betean izan zen, eta jende guztia zur eta lur gelditu zen”. Ondoren, herritik (Laudiotik) Bilbora joan zen bizimodua ateratzera.

Bertan, hiriko underground mugimenduan murgildu zen, baina trabestiek sekulako ikara ematen ziotela aitortu du, dezente maltzurak baitziren horiek. Hala ere, mamuak uxatu eta erosoago hasi zen sentitzen, harik eta hiriko transformista ospetsuenekin topo egin

zuen arte: Felliniekin, esaterako, 10 urte baino gehiagoz aritu zen. Ondoren, bakoitzak bere bideari ekin, eta Eduardo Gaviñak Yogurina Borova sortu zuen.

Jada lehen urteetako klandestinitatea alde batera utzirik, pertsonaia eratzeari ekin zion artistak. Bazihoan elur pilota handitzen. *Divinismoa* eta gaueko mundua alde batera utzi eta sortzen hasi zen buru belarri, hala ulertzen baitu Yogurinak transformismoa. “Horretan aritu naiz geroztik”. Hitz egiteari utzi dio, aurrean duen tostadari mokadu bat emateko. Irentsi eta jarraitu du: “Abestiak sortuz, irudiak landuz... eutsi ezineko sormena dut nire baitan”. Harentzat prozesu intuitiboa izan da, “autodidakta oso”, gaztetan erreferente askorik ez izateak, horretara eraman baitu. Hortaz, iturri askotatik edanaz sorturiko pertsonaia da Yogurina.

Orain, 53 urte ditu eta hurrekin dihardu lanean nagusiki, *drag* munduan batere ohikoak ez diren ekimenak gauzatuz. Estetikoki nabari da zertan dabilen, pailazo itxura hartzen baitu haurregana gehiago hurbiltzeko. Kontent mintzatu da etapa berriaz. “Hainbat ikuskizun prestatu ditut haurrentzako, eta Euskal Herriko ikastetxeetan zehar ibili ohi naiz”. Abestiek eta emanaldiek inklusioaz, ikusgarritasunaz eta aniztasunaz hitz egiten dute, eta heziketarako metodo alternatibo zein eraginkor gisa aldarrikatzen du trabestiak *drag*-a: “Ni neu ahalduntzetik hurkoa ahalduntzera pasa naiz”. Elur pilotak bueltaka darrai.

### **La Otxoa, oholta gainean aitzindari**

Athleticzale amorratua bera, oso gaztetatik hasi zen futboleant. Jokalari bikaina zen, eta familiak Bilboko San Frantzisko auzoan zuen tabernan txandakatzen zituen orduak haur bat besterik ez zela, botak takoiengatik aldatu zituen arte. Egun, Jose Antonio Nieflak 74 urte ditu, baina 14 urte zituenean egin zuen publiko bere homosexualitatea, eta, geroztik, hasi zen ezaguna egiten auzoan, bere karismak bultzaturik. Orduan, 8 A izeneko taberna batean ari zen lanean, eta auzokideak termino hori erabiltzen hasi ziren artista izendatzeko. “Gaztelaniaz irakurrita *Ochoa* ahoskatzen da”, zehaztu du transformistak. “Eta *la* gaztelaniazko artikulua gay munduan ibiltzen zen edonori jartzen zioten”.

Geroztik, 8 eta A formako arrakalak daramatza belarri bietan eszenatokira igotzen denean, bere genesiari keinu eginez. Egundoko ileorde koloretsua eraman ohi du, 80ko

hamarkadako itxura hartzen duena; artistaren nortasun zeinu ere bilakatu da denborarekin. Dena den, ez du bere burua trabesti edo *drag*-tzat: “Gonadun umorista bat naiz, transformista, izatekotan”. Izan ere, La Otxoak ez du gogoko trabestitzea, are gehiago, gorroto du, deserosoa baita harentzat. Era berean, ez zaio inoiz gustatu La Otxoa ezizena, denborarekin konformatu behar izan bada ere. “Trabestitu gabeko artista izan ninteke lasai asko”. Ordea, ospea ekarri zion horrek, eta hala jarraitu izan du beti.

Garaiko artista folklorikoak eta koplak abeslariak miresten zituen eta horiek imitatzen zituzten transformistak izan ziren eredu harentzat. Raphael eta Camilo Sexto bezalako abeslaria izan nahi zuen Nieflak, nahiz eta onartzen duen sekula ez zuela nahi izan ohiko *bolero* abeslari bat. “Ez nuen atera nahi orban edota lentejueladun jaka arruntarekin”. Halaber, lotsatia dela aitortu du, baina peluka eta makillajea jarri orduko “barren-barrenetik” eraldatzen da. Lotsagabea eta probokatzailea da La Otxoa.

Koilaratxoa kikaratik atera, zurrutada bat eman, eta halako batean emakumez jantzi zen lehen aldia etorri zaio gogora. Kafetegia txikia da, Abando auzoko taberna gehienak ez bezala, baina bertan dauden bezero urriak txunditurik daude Nieflaren zertzeladak entzuten. Isilik daude denak, adi-adi. “70eko hamarkada amaieran gonbidatu ninduen abestera *Radio Bilbao*-ko lokutore batek kazetarien eguneko bazkari batera”. Simon Cabido aktorearen *Doña Croqueta* pertsonaia aukeratu zuen egun hartan karakterizatzeko. Artistak kantatu izan zuen lehenago, baina *gizon* itxurarekin beti. La Otxoaren mitoa eratzeko lehen pausua izan zen hori.

### **Maruxak, “Travesti DJ Show”**

Esteban Ardanaz (25 urte) eta Joseba de Miguel (32 urte) lagun minak dira eta izugarri gogoko dute txutxu-mutxuan aritzea. Iruñeko Mendillorri auzoko bankuetan eserita pasa dute ordu andana, aurretik igaro den txandako bizilagunari gertatu zaion azken zertzelada komentatuz. “Maruxa batzuk gara”, dio De Miguelek. Izan ere, *txonismoak* beren izaera markatu du, baina ez klasikoa den *poligonero* estiloak, kuxkuxeroak baizik.

Hori gutxi dela, bakoitzak badu bere pertsonaia propioa taldearen baitan. Joseba de Miguelek Rita Laperrita du izena, eta, Ardanazek Diana Lamarrana, nahiz eta Maruxak izenarekin identifikatu gehiago. “Parranda batean otu zitzaizkigun izenak, hori baita

gure giroa”. Hain zuzen ere, DJ gisa hasi ziren duela hiruzpalau urte, eta *drag*-a erantsi zioten ondoren ikuskizunari, betidanik egin nahi izan baitzuten. Asetasun pertsonala da bikotearentzat arte hori. Askatasuna, ikerketa, sormena, moda... “Adar askoko zuhaitz bat da, diziplina asko barnebiltzen dituena”.

Halere, beren ikuskizuna ez dela kolektiboko giroetara soilik mugatzen azaldu du De Miguelek: “Helburu nagusietako bat izan da *drag*-a eramatea espazio guztietara”. Izan ere, itxia izan daiteke sarritan sektorea, betiko lokaletara mugatzen baita, eta hetero araua nagusi den tokietan aritzeko hautua egin dute trabestiek, beste espazioetan ere badirela nor aldarrikatzeko.

Beren karakterizazioak gauza anitz adierazi ditzake begi-kolpe batez. Arropa estuak daramatzate gorputzen kurba arriskutsuak iradokiz, eta zenbait zentimetroko takoiek liraintzen dute beren itxura. *Drag* artistek erabili ohi duten neurritz gorako makillaje koloretsua daramate, pelukaren ileekin aurpegian nahastuz. *Txoni* batzuk finean. Tarimara igotzean, ordea, ustekabeko musikak jotzen du. Trikitia eta panderoak musikaturiko arin-arin elektronikoko bat da. “Jendea erotu egiten da abestia jartzen dugunean!”, esan du Ardanazek.

Hain justu ere, dantzak gaztetan batu zituen biak, eta zainetan daramate folklorea geroztik. “Nola izango litzake erronkariarez jantziriko *Drag Queen* bat?”, galdegin zioten euren buruari behin. Pertsona ez-bitarren papera zein izango ote zen ere zalantzan jarri zuten, “biziki sexista” baita euskal dantza bere jatorrian. Beraz, galdera horietatik abiaturik, *Folklore Travesti* ekimena sortu zuten, hain antagonikoak diruditen euskal dantza eta *drag*-a uztartzen dituena.

Performance-aren bitartez, Euskal Herriko hainbat txokotako dantza eta jantziak ikusarazi dituzte, dantza herrikoiak hain markaturik dituen genero-rolak kolokan jarritz. “Norbaitek begian kolpea hartzen badu, izorra dadila!”. Halere, desio zuten guztia egin ez dutela azaldu dute, herri txikietako tradizioak ukiezinak baitira maiz. Ordea, horretan jarraituko dutela argi dute biek ala biek. “Beti izango dugu presente folklorea gure lanetan”.

## Las Fellini, kabaret “trastornista”

Koloredun puxika bi bularretan, bizar zarbatsua, orrazkera desegineko ileordea eta pailazo itxurako makillajea. Halaxe irten dira Felliniak Bilbo zaharreko Badulake klubeko oholtza gaineratik, komunen aurrean dagoen aldagelara joateko segidan. Amaitu da ikuskizuna. Daramaten itxura narratsak *trash* estetika irudikatzen du ezin hobeki. “Koadro hutsak gara, txingote eta kaskarin batzuk”, dio taldeko kide den Nagore Gorek (51 urte). Hurbildu ahala, nabariagoak dira beren ezaugarri narratsak. Harrotasun handiz aldarrikatzen dute beren izaera, moldeak hautsiz *drag* berezi eta bakarra sortu baitute, Euskal Herrian erreferente izateraino. “Trastornistak garela diogu, trastornatuak dauden transformistak alegia”.

Caprichossi Potxperta, eta Jeyxi Spaguettirekin batera aritu izan da Nagore 26 urtez Bilboko inguruak aztoratuz. Barbara Kaldo izan da azken fitxaketa. Nagorek gogora ekarri du oholtza gainera estreinakoaz igo zenekoa. Taldea eratu baino urte batzuk lehenago izan zen, Caprichossi bere orduko kideekin antzezten ikusi zuenean. Nagorek probatzeko eskatu zien, betidanik sortu izan baitzion zirrara transformismoak. Ordu hartan, Nagore Oskar Delgado zen, alter ego zehatzik gabeko gazte inozentea. “Oihal zuri zatar bat soinean eta lanbas bat zirudien ileordea buruan; eta hortxe atera nintzen”.

Eta eskerrak, behar-beharrezkotzat baitu performerrak antzeztea. Ogibide izateaz gain, asko ahaldundu du *drag*-ak: “Agertokian zaudenean zuk agintzen duzu. Berdin da nor dagoen aurrean eserita”. Izan ere, konplexu askorekin hasi zen Oskar Delgado oholtza gainean, Elisabeth Lacasta ezizenarekin lehenengo. Haren beldurrek ez zioten utzi berau izaten, harik eta Nagore Gore agertu zen arte. Pertsonalki ere beldur horiei “aurre egiten” lagundu zion alter ego berriak. Eroriz ikasten baita oinez.

Apurka-apurka, hasi ziren taldea eratzen; batzuk joan, besteak etorri... Alien Sisters gisa hasi zirenak Fellini gisa finkatu ziren azkenean, film itxuragabeak egiten zituen Fellini zuzendariarekin zuten antzekotasuna zela eta. Hazia hozitzear zen. “Demoniac kidea joan zenean umorerantz bideratu genuen taldea, *clown* estiloko ikuskizunera hain zuzen ere”, azaldu du Badulakeko barra gainean duen edalontziari zurrutada sakona emanez.

Hala, egun duten izaera fintzen hasi ziren, industriak *comedy drag* gisa katalogatuko lukeen estiloa hartuz. Ordea, Nagorek ez du bere burua *drag*-tzat: “Hasi ginenean

loraldia izan zuen *drag*-ak, orain bezalaxe, eta edozer izendatzeko balio zuen termino hark”. Transformista hitzekin sentitzen dira erosoen, *drag*-a hermetikoa izan baitaiteke sarritan. “Arauk hausten” segituko dutela dio, ezarritakoaren gogoz bestera.

## **Artea bazterretik irudikatuz**

*Diziplinak 100 urte baino gehiagoko ibilbidea du bere gain, eta gazi-gozoa izan den arren, inoiz baino indartsuago mantentzen da egun. Transformista mitikoek drag errege-erreginei utzi diete lekukoa, eta horiek muga imajinaezinetara zabaldu dute artea*

“Pistola batekin mehatxatu ninduten behin”, esan du Yogurina Borovak. Eztarria garbitu du, hitz egitea kostatuko balitzaio bezala, eta zapi batekin garbitu du ahoa segidan. Latza egiten zaio pasarte horretaz hitz egitea, baina halakoak eguneroko ogi izaten zirela dio. 90eko hamarkada betea zen orduan, eta *drag*-ak urrezko aroa bizi zuen genero artistiko gisa, nahiz eta klandestinitateak eta gaueko giroak horretan aritzen ziren pertsonak asko baldintzatu. “Hura bolborategi bat zen”.

Zorionez, aldatuz joan zen egoera, eta ostrazismo hura atzean gelditu da egun, nahiz eta “asko dagoen egiteke oraindik”. Yogurinarenekin ustez *drag*-arekiko interesa hazteak transbertsalagoa egin du diziplina: “*Drag* mugimendua izugarri hazi da, eta horrek lagundu du gure bizimodua ikusgarriagoa egiten eta baldintzak hobetzen”. Halaber, genero artistiko gisa ere aldatu dela azaldu du, kutsu artistikoagoa hartu baitu. Diziplina etengabe aldatzen ari da.

Izan ere, bigarren loraldia bizi du egun genero artistikoak. Momentuko izarrak imitatzen zituen transformismo klasikotik eta ondorengo trabestismo baldar eta klandestinotik egungo diziplina anitzeko *drag*-era igaro da. Euskarri digital berriek bulkada berezia eman diote, beren artea espazio desberdinetara iritsaraziz. Halaber, generoaren barrerak gurutzatu ditu diziplinak, eta urteetan hain hermetikoa izan den artea zabaldu da. Belaunaldi erreleboak ere berebiziko garrantzia izan du artearen segida bermatzerakoan, nahiz eta transformista beteranoen aburuz alde handia egon gizaldi ezberdinen artean. Ordea, batzuen esperientziak eta besteen freskotasunak korrante artistiko berritzaile eta sendoa azaleratu dute. Horren adierazle garbia da Euskal Herriko *drag* komunitatea, hamarkadaz hamarkada amarauna ehundu baitute kideek, sare sendoa osatzeraino.

## Historia baino istorioak

Paul B. Preciado filosofo eta teorialariaren arabera, disidentzia sexualen historia idatzi edota irakurtzeak gehiago du polizia-eleberri batetik ikerketa historiko zehatz eta klasikotik baino. Dokumentazio faltak, testuen itzulpen eskasak eta baliabideen gabeziak ia fikziozkoa egin du hetero-arautik at daudenen bizitza kontatzea, aztarnak jarraitzeko horiek asmatuz ezinbestean. *Drag* identitateen kasua, noski, ez da salbuespena.

Izan ere, zaila da jatorri zehatzik aurkitzen. Donatella Maniren aburuz, gizakia existitzen denetik egon da *drag*-a, nahiz eta XX. mendearen erdialdera arte ez zen diziplina izendatzeko termino hori erabili: “Antzinako Egipton bazeuden jada sozialki gizonei zegozkien arropak janzten zituzten erreginak”. Baina bereziki antzerkiari atxikita egon den kontzeptua da hori. Grezia klasikoan gizonek soilik osatzen zituzten antzerki taldeak, eta, beraz, emakumezkoen rola mutilek egiten zituzten. Joera horrek XVII. mendera arte iraun zuen mendebaldeko kultura kristauan, eta gaur egun arte ekialdean, Japoniako *Kabuki* antzerkian kasu.

Halaber, trabestismoak aldaketa ugari izan ditu historian zehar, forman eta edukian. Hamaika termino erabili dira berau izendatzeko, esaterako, *cross-dresser*, *trabesti*, *transformista*, *drag*... eta beste hainbeste esanahi izan ditu kontzeptuak, garai historiko bakoitzean horietako bat nagusituz. Baina egun *drag*-ak duen konnotazioak XIX. mendearen amaieran du jatorri zuzenekoena. Erresuma Batuko Victoriar antzerkian, hain zuzen ere. Garaiko aristokrazia eta klase politikoa satirizatzeko elementu dramatiko gisa jaio zen aldaera hori, hain erroturik zeuden genero rola kritikatuz bide batez. *Burlesque* generoaren baitan antzezturiko esajerazioa eta komedia ziren ezaugarri nagusiak, eta gaurko *drag* mugimenduaren zimenduak sendotu zituen horrek.

Espainiar estatuan, aldi berean, antzerki mota berezi eta berritzaile bat hedatu zen. Barietate ikuskizunaren baitan, garaiko izarrak eta aktore ospetsuenak imitatzen zituzten aktoreek aretoak hartu zituzten: lehenengo transformistak agertu ziren. Ordura arte gizonek soilik zuten publikoki antzezteko baimena, baina aro garaikidea hasi eta aurrerantzean emakumeei esleitu zion gizarateak paper hori, XIX. mende amaieran horiek nagusi zirelarik. Transformistek, ordea, tabu hori hautsi zuten XX. mende hasiera aldera. Leopoldo Fregoli italiarra izan zen transformismoaren hazia Espainian, eta haren



arrakastak ehunka artista anonimo bultzatu zituen oholtza gainera hiri zein herrietan. Transformismoaren egunsentia izan zen. Halaber, pertsona homosexualentzat askatasun espazio bakanetakoak bihurtu ziren horiek, eta, berandu baino lehen, homosexualitatearekin lotu zuen gizarteak artea, nahiz eta transformista asko heterosexualak izan. Ghettoetan zokoraturik gelditu zen diziplina ondorengo hamarkadetan, eta homosexualitateari loturik egon zen geroztik.

Hala ere, transformismoak beranduago jo zuen behea. Francok estatu kolpea eman zuenean askatasun zantzu oro deuseztatu zuen eta, noski, artearen agerraldi subertsibotzat zituen horiek ere, transformismoa tarteko. La Otxoa frankismoaren lehen urteetan jaio zen, eta ederki asko akordatzen da disidente sexuala zer zen izateaz. “Erreferente homosexual guztiak ezabatu zituen imajinario kolektibotik, gure existentzia bera ere ukatuz”. Hortaz, zomorro arraroak bailiran hezi ziren identitate ez normatiboa zuten pertsonak, haiek berek sentitzen zutena ulertu ezinean. “Bilboko karriketan gure kondizioko txikiteroekin begirada diskretuak elkartrukatuz konturatzen zinen ez zinela bakarra”, dio barrez.

Euskal Herria autarkia betean preso zegoela, bere bidea egiten jarraitu zuen diziplinak beste herrialdeetan, klandestinitatean betiere. Ameriketako Estatu Batuetan esaterako, kutsu artistikoa hartu zuen 50eko hamarkada aldera, zentzu kritikoa apalduz. *Camp* eta *Kistch* korronte artistikoei hartu zuten *drag*-a, diziplinaren ezinbesteko erreferentzia bilakatu aurrerantzean. Orobat, historian lehenengo aldiz, emakumeak hasi ziren *drag*-ean (edo parte hartzea aitortu zitzaizen behintzat) eta *drag* hitza erabiltzen hasi zen arte hori izendatzeko, AEBtan soilik izan bazen ere.

Halere, komunitatearekiko errepresioak eta jazarpenak jarraitu zuten etengabe, 1969ko ekainaren 28an egoerak eztanda egin zuen arte. Goizalde hartan, New Yorkeko Sotenwall Inn tabernako bezero homosexualen, transexualen eta trabestien aurka oldartu zen polizia, ohikoak baitziren polizia-sarekadak lokal horietan. Ordea, mehatxuei muzin egin eta burua altxatu zuten estreinakoz, sexu askapenaren defentsaren mugarri bilakatu.

Halaber, matxinadaren bultzatzaile nagusiak pertsona trans eta trabestiak izan ziren, kolektiboko kide zaugarrienak. Nolanahi ere, komunitatetik baztertuak izan ziren urte askoan. “Komunitate kontzientzia zegoen, baina gizon homosexualena zen hegemonia”, azaldu du Nagore Gorek. Euskal Herrian, ordea, ez zuten oihartzun handirik izan

matxinada eta protestek La Otxoak dioenez: “Demokrazia iritsi arte ez genuen ezer jakin”.

### **Transformismoaren urrezko aroa**

Diktaduraren lehen urteetako hutsune existentzialaren ostean, errautsetatik suspertzen hasi zen gizartea, herabeki bazen ere; frankismoaren azken urteak ziren. Ordea, errepresioak bere horretan jarraitu zuen, eta askatasun saiakera urriak berehala zapaldu zituen erregimenak.

Testuinguru horretan berpiztu zen transformismoa, *drag* kulturaren ama. “Gerra aurreko izarren imitatzailerik klasikoak ziren, baina profesionaltasun nabarmenagoarekin”, azaldu du Asier Bilbaok. Izan ere, momentuko artista ospetsu baten “imitazio perfektuan” oinarritzen zen ikuskizuna; espainiar abeslari folklorikoak izan ohi ziren, Sara Montiel, Lola Flores edota Rocio Juradoren mailakoak, baina baita Edith Piaf edo Liza Minelly bezalakoak ere. Esajerazioa erabiltzen zuten, “ikaragarriko mimetizazioa” lortuz. “Keinuak, hizkera, itxura, ahotsa... askotan artistak baino hobeki abesten zuten”. Gainera, abeslari horien imitatzailerik ofizialak ziren: “Artista ospetsua erretiratu edo hiltzen bazen, transformistak ere abituak uzten zituen”.

Di Carlo, Madame Arthur, Paco España, Pironello, Ocaña... hamaika izan ziren transformista aitzindariak, Bartzelonako *underground*-eko erreginak. Izan ere, erregimenaren azken urteetan Kataluniako hiriburuko gau mundua disidentzia sexualen egoitza bilakatu zen, eta bertan birstortu zen estatuko abangoardia kultural, artistiko eta sexuala. Horietako bat izan zen La Otxoa: “Sinestezina zen frankismo betean halako giroa egotea; Europako hiri liberalenetakoa zen, gezurra badirudi ere”. Artistak bertan ikasi zituen transformismoaren nozio guztiak, askatasuna helburu, 17 urterekin gurasoen etxetik alde egin ostean. Jakintza hura baliaturik bere pertsonaia sortu zuen.

*El Carrousel de Paris* eta *Barcelona de Noche* kabaret antzokietan ondu zuen La Otxoak profesionaltasuna, besteak beste. “Espainiako New York zirudien 60ko hamarkadako Bartzelonak, eta Paralel etorbideko inguruak kabaret lokalez lepo zeuden”. Bertan, Coccinelle artista transexual eta frantsesa ezagutu zuen esaterako, bere idolorik kuttunenetakoa. “Ikaragarria zen; Brigitte Bardot moduko *celebrity*-ak

eklipsatzeko gai zen”. Giroan mugitzeaz gain, akademia batean ikasi zuen abesten, giro homosexualen taberna batean lan eginez bitartean. “Bizi ederra oso”.

Soldaduskako jantziatarako neurriak hartzeko deitu zioten arte ez zen Euskal Herrira etorri. Gurasoek etxean gera zedin esan zioten, baina honek entzungor egin eta Bartzelonara itzuli zen berriz ere. “Baina ailegatu eta gutxira atxilotu egin ninduten beste 100 lagunekin batera”. Urkinaonako plazan zegoen giroko lokal batean sarekada burutu zuen poliziak eta atxilo eraman zituzten bertan zeuden guztiak: “Homosexualak, transexualak, transformistak...”. Izan ere, Francok onarturiko Alferren eta Gaizkileen Legea indarrean zen oraindik. II. Errepublika garaian sortu zuten proxenetak, etxegabeak eta abar zigortzeko, baina Francok homosexualen aurkako errepresioa gehitu zion legeari ondoren.

“Ziega batetik bestera mugitu gintuzten hilabete eta erdiz terroristen modura bilurturik, Burgosera ailegatu ginen arte”, azaldu du La Otxoak atsekabeturik. Bertan, *usategi* deitzen zioten homosexualentzako ziegetan sartu zituzten atxilo. “Errepublika garaiko presoak zeuden bederen, eta sostengua eman ziguten”. 1968ko maiatzean askatu zituzten, Frantzian piztear zen matxinadarekin batera.

Gorabeherak gorabehera, Bartzelonara itzuli zen berriz ere artista, baina gutxi iraun zuen bertan, soldaduska egitera deitu baitzuten eta, amaitutakoan, Euskal Herrian gelditu zen. Ordurako iritsia zen giro alternatiboa Bilboko karriketara, eta bertan murgildu zen artista. Ordea, berriz ere eraman zuten preso eskandalu publikoa egotzita. “Edozergatik atxilotzen zintuzten; behin belusezko alkandora berde bat eramateagatik ere zigortu ninduten kasik”. Trabestiek, esaterako, gizonen arropa jantzen zuten beren soineko eta jantzien behealdean. “Gonaren azpian praka eraman beharra zegoen poliziak zigortzea ekiditeko”. 1970ean disidente sexualak zigortzen zituen Gizarte Arriskutasun eta Errehabilitaziorako Legeak ordeztu zuen aurrekoa, eta lau mila pertsona baino gehiago atxilotu zituzten 70eko hamarkadan Euskal Herrian, homosexual izateagatik. “Etxeko eskaileren karraskak entzuten nituenean ni atxilotzera zetozela pentsatzen nuen”.

Hamarkada horretan, halaber, egungo *drag*-aren oinarri den *ball room* kultura sortu zen AEBn. Disidentzia sexualak lehiaketak egiten zituzten aretoetan, *vogue*-a dantzatzu eta desfilez, egungo *drag show*-en oso antzera. Txapelketa horiek *drag* etxeen artean

egiten zituzten, bazterkeriak bultzaturik etxerik edota familiarik gabe gelditu ziren pertsona disidente horiek osaturikoak, familia ere bilakatzeraino.

### **Trantsizioa borborrean**

1975ean hil zen Franco, eta demokraziarako bideari ekin zion Estatu Espainiarrak. Askatasun desirak nonahi hozitu ziren, iraultza kultural, sexual eta sozialari bide emanaz. Pertsona homosexualen kontrako erasoak ordea ez ziren eten, eta horiek defendatu eta ahotsa emateko lehen elkarteak agertu ziren. 1977an Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua (EHGAM) sortu zen besteak beste, homosexualen eskubidearen defentsan aritu zen Euskal Herriko lehen elkartea. Aitzindaria izan zen sexu askapenaren aldarrietan, eta ezinbestekoa pertsona horiek jasaten zuten jazarpenera salatuz eta babesa eskaintzeko. “Desadostasunak izan arren, garrantzi handiko elkartea zen eta da egun ere”, esan du La Otxoak.

1978an harreman homosexualak despenalizatu zituen Adolfo Suarezren Gobernuak, nahiz eta Gizarte Arriskutasun eta Errehabilitaziorako Legea ez zuten 1995era arte indargabetu. Halaber, 1979an euskal kolektibo homosexualaren ereserkia bihurtu zen abestia kantatu zuen La Otxoak Bilboko Aste Nagusiko txosna batean: *Liberate*. “Gerra ondoren egin zen bigarren Aste Nagusian izan zen”, zehaztu du. La Otxoaren bideo bat jarri zuten lehenik txosna horretan, eta izan zuen arrakasta ikusirik, zuzenean kantatzeko eskatu zioten. Esan eta egin. “Ikaragarria izan zen; Areatza jendez lepo zegoen, musikak lagundurik homosexualen eskubideak aldarrikatuz”. *Liberate por fin* irakur zitekeen peginak zabaldu zituztela ere aipatu du transformistak. Halaz ere, abestia ez zuen berak sortu. Titi espainiar abeslariak kantatzeko konposatu zuten, baina ausartegia zela iritzita uko egin zion honek, beraz, La Otxoari proposatu zioten, berarentzat “oso aproposa” zelakoan. Egintza hura mugari bilakatu zen euskal memoria kolektiboan.

Trantsizio betean hain zuzen, Bilboko San Frantzisko auzoa izan zen trabestismoaren meka. Kabaret eta trabestien lokalek auzo guztia zuten harturik, eta bertako giroak Paris edota Bartzelonakoaren itxura hartu zuen. Horietako bat izan zen Gorte kalean kokaturiko Bataclan aretoa. Egun desagerturik badago ere, garrantzi handikoa izan zen 70eko eta 80ko hamarkadetan. “Harribitxi bat zen, bertan zeuden beste lokal askoren antzera”, gogoratu du La Otxoak, nahiz eta inoiz ez zuen bertan antzeztu. Gerra aurretik ere egon zen indarrean, baina transformismoak trantsizioan bihurtu zuen bere baitako

lokal. Argiak, ordea, arin bihurtu ziren ilun. Drogek eta prostituzioak aise hartu zuten auzoa, eta lokal guztiak desagertuz joan ziren apurka, jendeari beldurra ematen baitzion bertara gerturatzea. “Delikuentzia orokortu eta bertan jarduten zuten artistek alde egin zuten baldintza hobetuz bila”.

80ko hamarkadak arazo berriak ekarri zituen, drogek eta GIB-HIESaren izurriteak eragindako sarraskia kasu. Homosexualen kolektiboa gogor jo zuen bereziki azkeneko horrek, eta gobernuen konplizitatearekin bortizki estigmatizatuak izan ziren kideak. “Gaixotasuna homosexuali esleitu ziguten, kutsatze gehienak drogak eragindakoak izan zirenean”, adierazi du transformistak. Hedabideek ere estigma elikatu zuten urte askoan, eta La Otxoa izan zen biktima horietako bat: “El Correo egunkaritik argazki batzuk egin zizkidaten, eta ohi baino meheago agertu nintzen HIESa nuela aditzera eman zuten”. Halaber, euskal homosexualen komunitateak oinarriak sendotu zituen eta kalera irten zen. 1983an Euskal Herriko Lesbiana Feministen lehen topaketa burutu zuten, eta trans pertsonentzako ebakuntza eta esterilizazioa despenalizatu zituzten, besteak beste.

### “Queer” iraultza

HIESak eragindako pandemia gutxi ez, feminismoaren hetero-zentratzea eta kapitalismoaren gay kulturaren bereganatzeak krisi sakona eragin zuten gay komunitatean, eta horrek sexu-genero sistemaren bazterrean kokaturiko identitateen haserrea eragin zuen ezinbestean. *Queer* mugimendua jaio zen, eta 90eko hamarkada betean iritsi zen Espainiako Estatura. “Mugimendu horren helburu nagusia zen -eta da- sexu-genero sistema bitarra abolitzea, diskurtso normatibo oro borrokatuz eta indargabetuz”, esan du Yogurina Borovak.

Izan ere, mugimenduak sektore homosexual baten asimilazio kapitalista gaitzestea zuen helburu, sistema zisheteronormatiboa irauliz. “Betidanik esan izan dizkiguten irainak gure egin genituen, politika subertsiboa eginez; jada ez ginen homosexualak, maritxuak baizik”. Historian lehenengoz, pertsona trans, maritxu, bollera eta trabesti guztiak batu ziren LGTBIQ+ siglen baitan, homosexualitatearen hegemonia alde batera utziz, identitate bakoitzak zegokion lekua hartu baitzuen bertan.

Korrante teoriko antisistema horrek, halaber, trabestismoaren kontzientzia politikoa berpiztu zuen, eta esanahi politikoago bat eman zioten *drag*-ari esaterako. Hainbat izan ziren generoaren inguruan eztabaidatu zuten filosofo eta teorialariak, Judith Butler estatubatuarra eta Paul B. Preciado kataluniarra kasu. Butlerren iritziz, generoa *performance* bat da, hau da, historian zehar genero tradizional bati esleituriko estereotipoek eraiki duten antzezpen ez naturala. Hortaz, *drag* errealitate ezberdinek *performance*-a darabilte, bere aburuz, genero bitar heterosexualak zalantzan jartzeko. Hala, sexua eta generoa desnaturalizatu egiten dituzte, mozorroa kendurik berau erantziz. Horretarako parodia eta irrigarritasuna darabilte oholza gainean, genero bitartasuna asmakizun bat baino ez dela adierazteko.

Honela, Preciadok dioenez, *drag* praktikek ikusgarritasun espazio propioa ematen diote kultura maritxu, bollera eta transari. Filosofoak deritzo, halaber, *drag*-a “politika performatiboa” dela, eta politika tradizionalaren alternatiba gisa aurkezten du, subjektibitate berriak produzitze aldera.

Teoria horiek eta AEBren hegemoniak eragin nabaria izan zuten garaiko LGBTQ+ komunitatean, eta baita *drag*-a ulertzeko eran ere. Transformismoa *transformatu* egin zen orduan. Kalkoak parodiari eman zion bidea, eta artista folklorikoek momentuko abeslari *pop* eszentrikoei. Belaunaldi berrien erreferenteak aldatu ziren, baita publikoaren gustuak ere; globalizazioak bultzatuta, AEBren eragin kulturalak ikuskizun mota berriak sortu zituen. Jada artista horien alter egoa ez zen momentuko izarra imitatzerara mugatzen; fikziozkoa bilakatu zen, norberaren fantasietatik sorturikoa. Egungo *Drag* fenomenoaren guztiz eratu zen.

### **“Transformismoaren oasia”**

Hala izendatu du Donatella Manik euskal *drag* eszena. Euskal Herria transformismoaren oasia da. Diziplinak 100 urte baino gehiagoz egindako ibilbideak komunitate eta estilo ezberdinak ernamuindu ditu nonahi, eta Euskal Herrikoa horietako bat da, urteetan nortasun handia hartu duena. Donatellak deritzo *drag*-a egiteko “patroi propioak” sortu dituela bertako komunitateak, diziplinari atxikitako edertasun kanonak errefusatu. “Euskal trabestismoa androginoa izan da beti, oso *camp* eta *kistch*, eta hori da berezi egiten gaituena”.

Areago, edertasun perfektua bilatzeaz nazkaturik dago Donatella, Euskal Herrian ez bezala, estatuko beste lekuetan gertatu ohi den eran. “Hiri handietan egiten den *draga* onena den ustea oso hedaturik dago komunitatean, baina nik dudarik gabe nahiago dut euskalduna”. Izan ere, *drag erreginak* Madrilen ere egin ohi du lan, eta oholtza gainera igotzeko maiz exijitzen diren baldintzen oso aurkakoa da. “Besoak depilatzeko esan zidaten behin, feminitatea desitxuratuko nuela bestela”. Horregatik, euskal eszena babestu eta sustatu beharrekoa dela dio, “bakarra eta askeena” dela iritzita.

Nagore Gorek ederki daki zer den kanon horietatik at aritzea. “Hasi nintzenean bizarra moztera behartzen ninduten, jendeak ez baitzuen ulertzen”. Iraindua ere izan zela adierazi du, nahiz eta denborarekin ezaugarri horiek onartuak izan diren. “Genero bitartasuna atzean utzi du pixkanaka *drag*-ak, oraindik hautu hori gaitzesten dutenak egon arren”. Bularretan daramatzaten globoak eta makillajea ere ez dira ohikoenak, baina itxuragabetasuna bere egin dutela adierazi du transformistak. “Gure identitate zeinua da”.

### **Badirela nor oihukatuz**

*Drag* hitza entzun orduko emakume itxurako trabesti txundigarria datorkio edonori burura. Inoiz ez maskulinitatea performatzen duen artista bat. Horrek agerian uzten du inolako ezbaierik gabe erregeen kolektiboaren bestelakotasuna. Gizarteak ikusten ez baditu ere hor daude, tinko, haiena den espazioa aldarrikatuz. Izan ere, *drag erreginen* pareko tradizioa dute *drag erregeek*, bereziki antzoki ingelesetan, XIX. mende amaieran izan baitzuen diziplinak loraldia. Ordea, iritsi diren isorioak, kronikak, eta informazioak askoz urriagoak dira, ia hutsalak izateraino.

Mykel Nutsek bi aldiz pentsatu gabe bota du arazoaren erroa: matxismoa. Izan ere, *drag erregeak* nagusiki emakumeak izaki –nahiz eta beste edozein generotakoak ere izan daitezkeen–, egunerokotasunean pairatzen duten zapalkuntza diziplinaren baitan ere ematen da. “Historikoki gizonei egokitu zaie espazio publikoa okupatzea, hortaz, emakumez jantzitako gizonek ere espazio gehiago izan dituzte gizonez jantzitako emakumeek baino”, azaldu du Nutsek.

Donatella ere bat dator erregearekin, eta kolektiboaren baitan dagoen misoginia ostendua salatu du. “Gizon izateak ikusgarritasun gehiago ematen digu zoritxarrez.

*Drag erregeak* beti egon dira hor, baina ez ditugu ikusi”. Hedabideek ere badute beren erantzukizuna aferan, Nutsen aburuz. “Telebistan *drag erreginetaz* hitz egiten da soilik, eta badirudi gu ez garela existitzen”. Halaber, medioek mespretxatu egiten dituztela azaldu du: “*Lesbiana marimutil horietakoak* idatzi zuten behin egunkari batean; ba bai, bollera horietako bat naiz ni ere”.

Orobat, azpimarratzekoa da transfeminismoaren papera LGTBIQ+ kolektiboaren borrokan, eta bereziki *drag erregeen* ekintzan Euskal Herrian, Donatellak dioenez. Izan ere, gizentasunaren performancea askotan erabili dute euskal kolektibo feministek aktibismoa gauzatzeko aldera. *Feministaldia* da adibide argiena. Bertan, *Drag king* tailerrak eskaini zituzten hainbat teorialari eta ekintzaile transfeministek 2006 eta 2008 urteetan, maskulinitatea fisikoki zein psikologikoki performatuz gizonen espazio publikoan duten jokaera ulertze aldera.

### **Belaunaldi arteko talka**

Egun *drag*-aren baliokidea da transformismo terminoa diziplina izendatzerakoan oro har, baina artista batzuek ez dute euren burua erreginen fenomenoarekin identifikatzen. La Otxoa da horietako bat, baloreak eta ezaugarriak desberdinak baitira bere aburuz. Generazio arteko arrakala ei da arrazoi garrantzitsuenetakoa: “Artista gazteek ezpainak mugitzearekin nahikoa dute, eta berdina zaie nor imitatu; lehen profesionaltasun eta diziplina handiagoa zegoen”.

Asier Bilbaok ere desberdintasunak ikusten ditu gizaldien artean, baina denboraren aldaera azpimarratu nahi izan du bereziki. “Garaiak ez dira berdinak. Orain *klick* batekin edozer gauza lortu daiteke”. Pelukak, soineko lentejueladunak eta bestelako apaingarriak zailak ziren lortzen, eta eskusibitate horrek mugitzen zuen jendea artista horiek ikustera. Egungo gazteek, baina, edozer eskura dezaketela esan du Bilbaok, merkataritza elektronikoko edozein enpresatan esaterako. “Berezitasuna galdu dute halakoek, eta berrasmatu beharra dago orain”. Halaber, gazteen berehalakotasun nahia ere aipatu du transformistak. “Arrakasta ez da momentuan lortzen, asko sakrifikatu behar da aurretik”.

Sare sozialen uholdeak, gainera, bat-batekotasuna ez ezik hutsaltasuna ere elikatu duela azaldu du Bilbaok. “Eskaparate apartak dira sare sozialak, baina kontuz ibili behar da



horiekin, ez baitira errealitatearen isla”. Izan ere, oholtza gainean erakusten da balioa bere iritziz, erakusleihen onena edukita ere. “Trabesti gazte asko artista hutsak dira, baina beste batzuek ez dakite zer egin agertokira igo orduko”. Itxurari gehiegizko garrantzia ematen zaiola dio.

Dena den, publikoaren interesak ere bilakaera izan du, eta pasio berdinarekin ikusten dituzte ikuskizunak. Izan ere, asko dira diziplina gertutik jarraitzen duten *fan* leialak, eta Mikel Martinez horietako bat da, denbora pasa ahala hortxe jarraitu baitu, zintzo, artistei sostengua emanez. Transformismoarekiko desberdintasunez jakitun, bi aldaerak bata bestearekiko bateragarriak direla adierazi du zaleak: “Bakoitzak badu xarma propioa, eta biak ala biak dira berdin zoragarriak, bata bestearen eboluzioa baita, berdinak funtsean”. Yogurina Borovak izugarri miresten ditu belaunaldi berriak, bere gizaldiak baino errazago izan duten arren, artista horien konpromisoa eta artea ukaezinak baitira.

### **“Drag”-a eta euskara**

Albina Stardusti bateraezina egiten zitzaion euskara eta *drag*-a uztartzea, baina konturatu zen Euskal Herrian kultura hori hedatu nahi bazuen euskaraz aritzea zela baza eraginkorra. Yogurina Borova ezagutu zuenean txunditurik gelditu zen, bera izan baitzen lehenengoa trabestismoa eta euskara lotzen. “Yogurina nire *drag* ama da, berak ireki zidan bidea”. Beraz, euskarazko edukiak sortzeari ekin zion eta, bistakoa denez, eragin handia izan du. “Euskal hedabideetatik dei asko jaso nituen, eta sekzio propioa dut Euskal Telebistako saio batean”. 2021etik *Biba Zuek* saioan dabil lanean Albina, eta LGTBQ+ kolektiboaren nondik norakoak argitzen ditu astean behin egiten duen atalean.

Hibridazio horrek askoren ahoak itxi ditu, eta orain dela gutxira arte pentsaezina zen fenomenoari eman dio bide. Yogurina Borovak ederki asko daki hori, hainbatetan gutxietsi baitute euskara eta transformismoa uztartzeagatik. Izan ere, euskararen bideari aspaldi ekin zion, baina jaso zituen fruituak ez ziren izan esperotakoak. “Aitzindaria zen oso trabesti batek euskaraz kantatzea baina ez zidaten kasurik egin”. Orain egoera aldatzen doa, eta euskarak bere tokia hartu duela dio. “Euskara altxor bat da, esparru guztietara zabaldu beharrekoa. Errentagarritasuna nahiko banu ingelesez egingo nituzke abestiak”. Maruxak taldeak ere horretan dihardu, eta euskararekiko atxikimendua berretsi dute. “Guk beti izan dugu argi euskarak eta euskal kulturak gure lana ardaztuko

dutela”. Izan ere, ohikoa ez den bide batetik euskararen alde egitea aberasgarria dela azaldu dute. “Euskara transbertsalizatzen da horrela”.

### **Erronkak ortzi-mugan**

Ibilbide luzea egin du *drag*-ak, gazi-gozoa, eta oraindik ere baditu kilometroak aurretik normalizazio betea lortze aldera. “Egoera asko hobetu bada ere ezin gara erlaxatu”, esan du Albina Stardustek irmo. Lan-baldintzak, esaterako, maiz oso kaxkarrak izaten direla kexatu da: “Baldintza oinarritzak baino ez ditugu eskatzen”. Izan ere, jatatxe batean egin zuen lan denbora batez, ezkondu aurreko agurrei giroa ematen, eta komunitan aldatu behar izaten zela azaldu du, bezeroek beren beharrak egiten zituzten bitartean. “Komunak pixa eta kaka egiteko dira, eta ez aldagelak”.

Horrek agerian uzten du diziplinaren gutxiespena, atzean sakrifizio andana dakarren arren. “Jendeak uste du makillatu, ileorde bat jarri eta abestea besterik ez dela, baina lan handia dago atzetik”. Hain zuzen ere, ordu bateko ikuskizunak egun osoa behar du prestaketa lanetarako, eta makillajea zein arropak garestiak izaten dira: “Hori guztia ordaindu egin behar da, gastu asko dira eta jendeak gehiago baloratu beharko luke hori”.

Yogurina Borova trabestifobiak arduratzen du gehien. “Gaztea nintzenean emakume transexualek jazarri egiten gintuzten, emakumez janzen ginenez beren nortasuna barregarri uzten genuelako”. Zenbait emakumek ere iraindu zuten Yogurina feminismoaren izenean, draga feminitateaz iseka egiteko tresna bat zela iritzita. “A zer nolako feministak”, esan du ironikoki. Harrigarriena, ordea, egun ere horrelakoak gertatzen direla dio. “Donostiara joan nintzen haurrentzako ikuskizun bat egitera, eta hainbat dei anonimo jaso zituen zentroak, haurrak adoktrinatu genituelakoan”.

Gizartea zein puntutaraino eraldatu den galdegin dio Nagorek bere buruari, etsipen keinu bat eginez. “Trabestifobia, homofobia eta transfobia gehiegi dago oraindik jendartean”. Halaz ere, gizaldi helduen lana goraiatu du Albinak, atak ireki baitizkie belaunaldi berriei: “La Otxoak, Yogurinak, Asier Bilbaok, Felliniek... bidea urratu digute, eta borrokan segitzeko kemena eman”. Denek ala denek uste dute generoa bezala aurreiritziak ere erantzi daitezkeela, eta, bazterretik bada ere, artea performatzen jarraituko dutela argi dute, kosta ahala kosta.

## **Leihoak**

“*Drag*-a ekintza politikoa da”

**Albina Stardust**

“Nire identitatea aurkitzen lagundu dit”

**Albina Stardust**

“Ni neu ahalduntzetik hurkoa ahalduntzera pasa naiz”

**Yogurina Borova**

“Helburu nagusietako bat izan da *drag*-a eramatea espazio guztietara”

**Maruxak**

“*Drag* mugimendua izugarri hazi da, eta horrek lagundu du gure bizimodua ikusgarriagoa egiten”

**Yogurina Borova**

“Gizakia existitzen denetik egon da *drag*-a”

**Donatella Maní**

Bilboko San Frantzisko auzoa trabestismoaren meka izan zen.

“*Drag erregeak* beti egon dira hor, baina ez ditugu ikusi”

**Donatella Maní**

“Transformismoaren oasia da Euskal Herria”

**Donatella Maní**

## 1.Zatidura

# Heriotzak piztu zuenugarra

*Duela 43 urte poliziak trabesti bat hil zuen tiroz Erreterian, eta lehenaren eta geroaren mugarri izan zen hori Euskal Herriko LGTBIQ+ mugimenduarentzat*

Goizaldeko ordu txikiak ziren, eta Erreteriano (Gipuzkoa) Apolo diskotekak atea itxi zituen, beste lanaldi bati amaiera emanez. Bertako langileak barruan gelditu ziren, gaua lagunartean luzatzeko asmoz, bat-batean norbaitek *club*-eko atea jo zuen arte. Kalez jantzitako polizia bat zen. Barruan zeudenek itxita zegoela esan zioten, baina honek entzungor egin eta edatekoa eskatu zien bortizki, Euskal Herriaz nazkatuik norbait hiltzeko gogotsu zela esanez. “Norbait hil nahi baduzu hemen naukazu”, erantzun zion bertan zegoen trabesti batek, gizonaren aurrean tinko pausatuz. Poliziak, birritan pentsatu gabe, patrikan zuen pistola hartu eta tiro egin zion begian, aurrean zuenaren berehalako heriotza eraginez. Vicente Vadillo *Francis* hil zuen.

1979ko ekainaren 10a zen orduan, eta 40 urte baino gehiago igaro badira ere Mikel Martinek, EHGAM Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduko kideak, atzo balitz bezala gogoratzen du jazotakoa: “Bilbon nengoela, Apolo klubeko langile ziren Francisen lagunak eman zidaten gertatutakoaren berri, eta biziki mindu ninduen”. Ez zuen Francis ezagutzen, baina Erreteriano gau giroan aski ezaguna zela azaldu du, sortzez Alacantekoa (Herrialde Katalanak) bazen ere. “Hil baino urte batzuk lehenago iritsi zen Erreteriano Iztieta auzora, eta aise egin zituen harreman sendoak bertakoekin”.

Frankismoaren osteko urteak ziren eta homosexualenganako jazarpenera sustraiturik zegoen gizartean, eta hortaz hedabideetan ere bai. Heriotzaren trataera “iraingarria” izan zela esan du Martinek: “Emakumez jantzitako gizon bat hil zutela esan zuten, merezita zuela iradokiz”. Horrek eman zion bereziki min gehien. “Erruduna epaitu beharrean gorputz disidente bat kriminalizatu zuten, bere janzteko erak hilketa justifikatuko balu bezala”.

## **Ahobatezko gaitzespena**

Lehenaren eta geroaren mugari izan zen erailketa euskal LGTBIQ+ komunitatearentzat, eta inoiz ez bezalako borroka piztu zuen, hautsak harrotuz. Disidente sexuak kaleak hartu zituzten, eta kolektibo gisa armairutik atera ziren aho batez, sortu berri zen EHGAMen indarra sendotuz. Noski, gizarte osora hedatu zen haserrea, izan ere, ohikoak ziren poliziak eragindako hilketak, eta horrek lagundu zuen kausak babes zabalagoa eduki zezan. “Gizarteak, eta bereziki errenteriarrek, asko lagundu zuten gertatutakoa argitzen eta laguntza eskaintzen”.

Atxikimendu hori ondorengo egunetan izan ziren mobilizazio jendetsuetan bihurtu zen. Francis hil eta arratsalde hartan, gertatutakoa ezagutzera emateko asanblada bat deitu zuten herriko hainbat eragilek eta, biharamunean, Errenteriako Polizia Nazionalaren kuartela hartu zuten manifestariak, baina indar armatuek berehala desegin zuten jendetza tiroka eta kolpeka. Ekainaren 12an manifestazio historikoa egin zuten Donostian, *Francis gogoan zaitugu* lelopean, eta gay eta lesbianen askapenerako egin zen lehen agerraldi publikoa izan zen Gipuzkoan. “Euskal Herriko Stonewall izan liteke”.

## **Eta gero zer**

1983an, Francis hil eta lau urtera, Antonio Cobo polizia nazionala epaitu zuen Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak, eta zuhurtziagabetasun ausartegia egotzi zion honek, 9 urteko kartzela zigorrera kondenatuz. “Izugarria izan zen; hilketa egoztea zen logikoena, baina bere horretan gelditu zen sententzia”. Antonio Cobo ez zen sekula kartzelara sartu. Halaber, epaiketa ospatu bitarteko urteak infernuaren parekoak izan ziren EHGAMko kideentzat. Antolakundeak zuen postontzira era guztietako mehatxuak iristen zirela azaldu du Martinek: “Kide bat bahitu egin zuten behin, eta tortura zantzuekin askatu zuten gero”.

Goizalde hartan jazotakoa berriz ere gerta ez dadin, hezkuntzaren garrantzia azpimarratu du militanteak: “Ez da nahikoa ekainaren 28an kalera irtetea edota borroka guztiaren pisua kolektiboen esku uztea; ezin ditugu gure eskubideak zoriaren mende utzi”. Gazteen papera ere “erabakigarria” dela deritzo: “Ez dezatela onartu eskubideen murrizketa lazoena ere, etorkizuna baitira”.

### Lasterketa aniztasunerat

RuPaul Charlesen erregetzak beste konkista bat bereganatu du. Suediara hedatuko da, hain zuzen, Charlesen *Drag Race* inperioa. Ameriketako Estatu Batuetan jaio zen *drag queen* hoberenen lasterketak hamaika herrialde zeharkatu ditu jada, eta eskandinabiar penintsulako herrialdea izanen da karreraren hurrengo etapa. Kontent azaldu dira egunotan World of Wonder talent showaren ekoiztetxearen sortzaileak diren Fetton Bailey eta Randy Barbato, etxean egin dieten elkarrizketa batean: “*Drag Race* formatuak eta, orokorrean, *Drag* arteak mundu osoko ikus-entzuleak erakartzen segitzen du, beraz oso pozik gaude erreginen talde berri bat aurkezteaz”, azaldu du Barbatok.

RuPaul’s *Drag Race reality*-a 2009an sortu zuen Charlesek, eta, geroztik, mundu osora hedatu da formatua. Ukaezina den ikusgarritasuna eman dio horrek *drag*-ari, arte hori ezaguna ere ez den txokoetara eraman baitu. Bertan, aurrez aukeratutako hainbat *drag erregina* lehiatzen dira, diziplinak bere baitan dakartzan hainbat froga eginez, esaterako, *lip sync*-a (karaokea), jostea, makillatzea, antzeztea eta abar. Distira guztiak, ordea, ez dira urre izaten.

Yogurina Borova euskal trabestiak proposatu bezain pronto baztertu zuen espainiar bertsioak lehen denboraldirako egin zion gonbita. Bere hitzetan, proiektu berritzaile gisa jaio zen ikuskizuna, genero estereotipoak hautsi eta kolektibo oso bat ikusgarritasunera eramane zukeena. Ez zen hala izan antza. “Denborak erakutsi zuen aniztasuna ez zela errespetatzen. Emakumez jantzitako gizonen performancea egitera bideraturik zegoen bereziki AEBtako bertsioa, gizonen sozialki ezarriak diren ezaugarria debekatuz; bizarrak kasu”, azaldu du.

Honela mintzatu zen RuPaul 2018an *The Guardian* egunkarian egin zioten elkarrizketa batean: “*Drag*-ak ironia galtzen du gizonen ez badute egiten, deklarazio soziala baita, gizonen menperaturiko kulturaren aurkako probokazio bat”. Beraz, emakume zis zein transexualek ezinen lukete parte hartu. “Zis-gizon homosexual askorengan ostendurik

dagoen matxismoa agerian baino ez dute uzten halako komentarioek, baita sexu eta genero bitarraren indartzea ere”, esan du Yogurina Borovak.

Trabak traba, tokian tokiko moldaketak eginaz hermetismo hori hautsiz joan da, formatua hedatu den heinean bereziki. Egun Atresmedia komunikazio taldeak emititzen duen *Drag Race España* saioa esaterako horren adibide da. Eredugarria ari da izaten Donatella Mani *drag* erregina gaztearen ustez: “Badirudi aldatuz doala, bizardun trabesti bat dago aurten, baita itxura androginoa duen beste bat ere. Erresuma Batuan zis-emakume bat ere onartu dute lehiaketan”. Industriak egoera ulertu duela dirudi, eta, pixkanaka bada ere, ari da lazoago jokatzen.

Zer pentsatuko ote du RuPaul ahalguztidunak horren inguruan? Batek daki. *Drag* munduan aritzen direnek argi dute hori ez dela bidea, batez ere *drag* kingek, horiek baitute protesta honen lidergoa. Ikusgarritasun falta salatu dute askotan, baina industriak ez die kasu handirik egin orain arte. Bistakoa da, *drag* erreginak bakarrik agertzen baitira hedabideetan. Egoera horri buelta eman nahian dabilta orain kolektiboaren barrenetik.

Mykel Nuts *drag* erregea da, eta identitate ezberdinek osaturiko proposamena du soluziotzat, oraingoz aukera sendoa ez dirudien arren. Zurruntasunak dirauen bitartean, aurkeztuko ez dela dio Yogurina Borovak. Donatella Manik, ilusioz ikusten du etorkizuna. Hirurek dute argi, ordea, zein den arineketaren meta: guztiena izatea.

## Kontzeptuak argitzen

### Drag

Hitzaren jatorria zehatza ez bada ere bi dira onespren handiena duten teoriak. Batek dio ingelesezko *dressed as a girl* (emakume bezala jantzita) hitzen akronimo zuzena dela, eta besteak hizkuntza horren *drag* (arrastatu) terminoaren esanahitik datorrela. Izan ere, XIX. mendera arte bereziki, aktoreek kapa luzeak eramaten zituzten, horiek arrastaka eramanez.

Egun *Drag* hitzak duen konnotazioa 50eko hamarkada aldera hartu zuen AEBn, eta, geroztik, mundu osora hedatu da. *Drag* esaten zaio hegemonikoak diren bi generoak esajeratuz egiten den ikuskizun artistikoari, eta hortik sortu dira hainbat identitate, *Drag Queen* eta *Drag King*-ak besteak beste. Lehenengoek emakumeei gizarte heteropatriarkalak egokitu dizkien rola eta gorputz kodeak zalantzan jartzea dute helburu, parodia, esajerazioa eta antzezpen artistikoa oinarri dituztelarik. Azken horiek berriz, berdina egiten dute, baina gizonei egokitutako rola zalantzan jarriz. Beraz, ekintza politikoak dira biak ala biak.

### Transformismo

XIX. mende amaieran Espainian sortu zen korrante artistikoa da. Garaiko izarrak imitatzen zituzten transformistek, eta horien imitazio perfektuan zetzan ikuskizuna. Diktaduraren azken urteetan eta trantsizio garaian izan zuen loraldia, eta LGTBIQ+ kolektiboari loturiko pertsonak eta ikuskizunak ziren oro har.

*Drag*-aren amatzat dute askok, fenomenoaren aurrekari zuzena izan baitzen Espainian eta Euskal Herrian, eta egun esanahi berdintsua dute. Dena den, badira bi korronteak bereizi beharrekoak direla diotenak, transformismoa izan zenaren ondarea gal ez dadin oro har.



## **Trabesti**

Gizarteak aurkako sexuari egokitutako arropak janzten dituen pertsona da. Ordea, esanahi ezberdinak izan ditu denboran zehar. Euskal Herrian, esaterako, pertsona transak izendatzeko erabili zen trantsizioa amaitu arte. Egun, aurkako sexuari dagozkion arropak daramatzaten pertsonak izendatzeko erabiltzen da, eta *drag*-ean aritzen diren pertsoneri ere hala deitu ohi zaie.

## **Transfeminismo**

*Trans* eta *feminismo* hitzen batura da, feminismoaren korrante postmodernoa. Zis ez diren emakumeak barnebiltzea du helburu, feminismoaren subjektua zabalduz. Feminismo klasikoaren gabeziek beharturik sortu zen, izan ere, jaiotzetik emakume gisa katalogatutakoak soilik barnebiltzen ditu azken horrek, gainerako emakumeen emakume izaera ukatuz.

## **Queer**

Euskaraz *kuiar*. Gauzaeza, arraroa edota gaizki egindakoa izendatzeko ingelesezko irain bat da jatorrian, XVIII. mendean sorturikoa. Halaber, heterosexualitatearen arauetatik at zeuden gorputz disidenteak izendatzeko ere balio zuen. Hitzaren esanahiak bere horretan jarraitu zuen aurreko mendeko 80ko hamarkadaren erdialdera arte. Hainbat krisik batera jo zuten LGTBIQ+ kolektiboa, eta horien haserreak queer iraultza ekarri zuen. Pertsona horiek iraintzeko termino guztiak bereganatu zituzten, queer hitza tarteko, eta sexu-genero sistema irauliko zuen mugimendu postmoderno gisa finkatu zen. Iraultza horiek queer teorien sorrerari eman zioten bide, sexu-genero sistema zalantzan jartzen duen teoria multzoari hain zuzen ere.